

## I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

### DIPUTATU NAGUSIAREN SAILA

**21/2022 Ebazpena, urtarrilaren 5ekoa, Diputatu Nagusiaren Kabinete eta Komunikazio Zuzendaritzarena, Arabako Foru Aldundiko sailek elkarte eta erakundeekin sinatutako lankidetzaz hitzarmenen zenbait laburpen argitaratzeko agintzen duena**

Diputatu Nagusiaren Saileko Idazkaritza Teknikoko eta Herritarrak Atenditzeko Zerbitzuari lankidetzaz hitzarmenen hainbat kopia bidali zaizkio, Arabako Foru Aldundiko sailek behar bezala sinatuta.

Kontuan hartu da horretarako zer xedatzen duten Sektore Publikoko Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 47. artikulua eta ondorengoak; Arabako Foru Aldundiaren antolaketa, funtzionamendu eta araubide juridikoari buruzko abenduaren 18ko 52/1992 Foru Arauak 79. artikulua, eta Diputatuen Kontseiluaren maiatzaren 11ko 129/1993, urriaren 29ko 95/1996 eta maiatzaren 27ko 53/1997 foru dekretuek.

Lehen aipatutako lege aginduak eta aplikatu beharreko gainerakoak ikusirik, Arabako Foru Aldundiaren Antolaketa, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoari buruzko abenduaren 18ko 52/1992 Foru Arauak 102. artikulua eta Diputatuen Kontseiluaren urriaren 29ko 95/1996 Foru Dekretuaren hirugarren apartatua xedatutakoaren arabera dagozkidan eskumenak egikaritzaz, ondoko hau

#### EBAZTEN DUT

Agintzea ALHAOn argitaratu daitezela lankidetzaz hitzarmen hauek:

#### **IZENPETZE EGUNA: 2021eko apirilaren 6a**

Izenpetu duten organoak:

Alde batetik: Ramiro Gonzalez Vicente, Arabako Foru Aldundiaren izenean eta ordezkartzan.

Bestetik: Vicente Atxa Uribe, Mondragón Unibersitatearen ordezkartzan.

Hitzarmenaren xedea: Hezkuntzako lankidetzaz hitzarmen honen xedea da Mondragón Unibersitateko ikasguneetako ikasleen praktika akademikoak Arabako Foru Aldundiaren lantokietan nola garatuko diren arautzea.

Indaraldia: Hitzarmen hau indarrean jarriko da sinatzen den egunean eta lau urteko indaraldia izango du.

Luzapena: Alderdiek berariaz hala adostuz gero, gehienez ere 4 urtez.

**IZENPETZE EGUNA: 2021eko uztailaren 15a**

Izenpetu duten organoak:

Alde batetik: Emilio Sola Ballojera, Arabako Foru Aldundiko Gizarte Politiken Saileko foru diputatua eta Gizarte Ongizaterako Foru Erakunde Administrazio Kontseiluko lehendakaria.

Bestetik: Alberto Urteaga Villanueva, Beti Gizartean fundazioko lehendakaria.

Hitzarmenaren xedea: Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen eta Beti Gizartean Fundazioaren arteko lankidetzaren mekanismoei eustea eta berriro arautzea, egoitza arretako programak kudeatzeko (Sortu-Leku Programa eta Hazten Programa).

Finantzaketa: 962.116,47 euro.

Indarraldia: 2021eko abenduaren 31.

Luzapena: 4 urtez luza daiteke.

**IZENPETZE EGUNA: 2021eko urriaren 11**

Izenpetu duten organoak:

Alde batetik: Cristina González Calvar, Arabako Foru Aldundiko Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren eta Foru Administrazioaren Saileko foru diputatua.

Bestetik: Ruben González Estévez, Miniature World Tour, SLren administratzailea.

Hitzarmenaren xedea: Arabako Foru Aldundiko Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren eta Foru Administrazioaren Sailaren eta Miniature World Tours, SL elkartearen arteko harremanak formalizatzea, entitate bakoitzari modu osagarrian dagozkion eta beren helburuak lortzera bideratuta dauden ekintzak optimizatzeko.

Aldeen ekarpenak eta konpromisoak: Arabako Foru Aldundiaren aldetik, Miniature World Tour, SLri 16.000,00 euroko dirulaguntza ematea Arabako Foru Aldundiaren 2021eko ekitaldirako gastu aurrekontuaren kontura.

Indarraldia: sinatu ondorengo egunetik aurrera eta sinatzen den urteak dirauen bitartean.

Luzapena: ez da jasotzen.

**IZENPETZE EGUNA: 2021eko urriaren 21a**

Izenpetu duten organoak:

Alde batetik: Emilio Sola Ballojera, Arabako Foru Aldundiko Gizarte Politiken Saileko foru diputatua eta Gizarte Ongizaterako Foru Erakunde Administrazio Kontseiluko lehendakaria.

Bestetik: Abel Barinagarrementeria Larrañaga, Arabako Autismo Elkarteko lehendakaria.

Hitzarmenaren xedea: Arabako Foru Aldundiko Gizarte Politiken Sailari atxikitako Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen eta Autismo Araba elkartearen arteko lankidetzaren tresnak mantentzea eta berriro arautzea, Arabako autismoaren espektroko nahasmenduak dituzten helduentzako Landaberde Eguneko Zentroaren arreta programa kudeatzeko eta garatzeko.

Finantzaketa: 636.463,70 euro.

Indarraldia: 2021eko abenduaren 31ra arte.

Luzapena: 4 urtez luza daiteke.

**IZENPETZE EGUNA: 2021eko azaroaren 2a**

Izenpetu duten organoak:

Alde batetik: Emilio Sola Ballojera, Arabako Foru Aldundiko Gizarte Politiken Saileko foru diputatua eta Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeko Administrazio Kontseiluko lehendakaria.

Bestetik: José Ramón Molinuevo Laña, Amurrioko Udaleko alkate-lehendakaria.

Hitzarmenaren xedea: Arabako Foru Aldundiko Gizarte Politiken Sailaren eta Amurrioko Udalaren arteko lankidetzarako mekanismoak ezartzea, udalerrian dagoen eta bere eskumenekoa den adineko pertsonen etxebizitza komunitarioa kudeatu eta mantentzeko, guztira zortzi plaza aldi berean erabiltzeko ahalmenarekin.

Finantzaketa: 106.288 euro.

Indarraldia: 2021eko abenduaren 31ra arte.

Luzapena: 4 urtez luza daiteke.

**IZENPETZE EGUNA: 2021eko urriaren 21a**

Izenpetu duten organoak:

Alde batetik: Emilio Sola Ballojera, Arabako Foru Aldundiko Gizarte Politiken Saileko foru diputatua eta Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeko Administrazio Kontseiluko lehendakaria.

Bestetik: Jesús Cantero Martínez, Espainiako Gurutze Gorriaren Arabako Batzordeko lehendakaria.

Hitzarmenaren xedea: Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen eta Espainiako Gurutze Gorriaren Probintzia Batzordearen arteko lankidetzaren mekanismoei eustea eta berriro arautzea, Añanako, Aiarako, Mendialdeko, Arabako Lautadako, Guardia-Arabako Errioxako eta Gorbeialdeko kuadrilletan garraio egokituko zerbitzua emateko.

Finantzaketa: 695.223,82 euro.

Indarraldia: 2021eko abenduaren 31.

Luzapena: 4 urtez luza daiteke.

**IZENPETZE EGUNA: 2021eko azaroaren 17a**

Izenpetu duten organoak:

Alde batetik: Blanca de la Peña Bernal, Bide Azpiegituren eta Mugikortasunaren Saileko foru diputatua.

Bestetik: Gregorio Alonso Vallejo, Berantevillako Administrazio Batzarreko presidentea.

Hitzarmenaren xedea: A-3122 errepideko zatien transferentzia, A-3122 errepidean Berantevillako saihezbidea zerbitzuan jarri ondoren.

Indarraldia: iraupen mugagabea.

Vitoria-Gasteiz, 2022ko urtarrilaren 5a

*Kabinete eta Komunikazio zuzendaria*  
**ELENA FERREIRA SEBASTIÁN**